



ARAUTEGIA 2024

FUTBOL 11 (Partaidetza ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, Basaurin, Artunduaga Futbol zelaian 2024ko maiatzaren 25 eta 26an eta ekainaren 1an. Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak:

Infantilak: 2010 eta 2011ean jaiotako mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Ekipoak honela osatuko dira: gehienez 25 jokalaria, delegatu bat eta entrenatzailea.

Aktan 18 jokalaria gehienez eta 14 gutxienez agertuko dira..

Talde batek gutxienez 14 jokalaria aurkezten ez baldin baditu, partida berdina jokatu da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna emanez gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.



Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari aldez aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalariren zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2 – 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalariren parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partiduak 35 minutuko bi zati izango ditu, 10 minutuko atsedenaldi batekin.

Lehenengo zatia 17 minutu eta 30 segundoko 2 tartetan banatuko da, 2 minutuko atsedenarekin. Jokalari bakoitzak lehen zatiko tarte bat jokatu beharko du gutxienez. Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentziora jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Lehen zatian egin beharreko ordezkapenak, lehen tartearen amaieran egingo dira. . Bigarren zatian zehar ordezkapenak mugagabe eta askeak izango dira.



Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gertatu ez dadin, emaitza edozein delarik ere partiduaren amaieran ekipo bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu.

4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO

ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

⇒ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN
IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidaren lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

⇒ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN
IRIZPIDEAK

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzietan aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzietan aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak
- 8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituenak
- 9º- Zozketa

5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.



6. ZIGORRAK

Egozpenaren aurrean::

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, honek jokatzen duen hurrengo partidari.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da partida irauten duen bitartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango dute taldeak jokatzen duen hurrengo partidari.

7. FUTBOL ZELAIA

Txapelketaren programan azaltzen denaren arabera.

8. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

9. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausua bideratuko ditu.

10. AZKEN OHARRA

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1koa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketaren diziplina-araubideari buruzkoa



EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLI JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- d) AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioeko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.